48. artikulua.—Erakunde onuradunen betebeharrak

Erakunde onuradunek derrigorrez mantendu behar dute langilearen egonkortasuna, hau da, kontratua formalizatu eta bi urteko aldian.

Adierazi den aldi horretan ez badira egonkortasun baldintzak mantentzen erakunde onuradunak jaso dituen laguntzak murriztu edo itzuli beharko ditu, ondoko kasu hauetan, alegia:

- a) Enpresariak kontratuari bere kabuz amaiera ematen badio edo langilea Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko lantoki batera aldatzen badu, erakunde onuradunak osorik itzuli beharko du jasotako diru-laguntza.
- b) Pertsona langilearen borondatez kontratuaren suntsiarazpena gertatzen bada laguntza gutxitzeari ekingo zaio eta, hala denean, laguntza itzultzeari. Eragiketa hori kontratua indarraldian egon den aldian eskatu diren bi urteei emaitzako proportzioa kenduz egingo da.

Aurreko langilearen betekizun eurak betetzen dituen beste pertsona bat kontratatzen bada aldi berean edo besteari baja eman eta bi hilabete igaro baino lehen, ez da egongo diru-laguntza itzuli beharrik. Kontratazio horrek ez du jasoko inola ere hemen aurreikusitako beste laguntzarik.

Ez da egongo diru-laguntza itzuli edo aldi berean beste pertsona bat kontratatu beharrik ondoko kasu hauetan, Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat:

- Dekretu horren 40. artikuluan adierazitako arrazoiengatik langilea lekualdatzen denean, baldin eta lan-kontratua azkentzen ez bada.
- Talde-irazpena egiten denean dekretu horren 51. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laguntza jasotzen duen erakundeak jarduera uzten badu, une horretatik aurrera eman zaion diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko du.

- 4) La actividad laboral correspondiente al contrato realizado deberá desempeñarse en Centros de Trabajo de la Entidad contratante radicados en el Territorio Histórico de Bizkaia.

- 5) Los contratos podrán ser tanto a jornada completa como a jornada parcial, siempre que ésta represente un mínimo del 50% de la jornada habitual establecida en el convenio colectivo de aplicación.

Artículo 47.—Justificación de la subvención

La ayuda otorgada se justificará en los siguientes plazos:

- 1) Al cumplirse un año de la fecha de la contratación para aquellos contratos formalizados con carácter indefinido, mediante la remisión de los recibos salariales y de los documentos de cotización a la seguridad social tc2, de los once meses siguientes al que se produjo el contrato.

En el supuesto de contratos que se formalizaron con carácter temporal, al cumplirse un año de la fecha de contratación inicial mediante la remisión de los recibos salariales y de los documentos de cotización a la seguridad social tc2, de los once meses siguientes al que se produjo el contrato además de la copia del documento en el que conste el acuerdo de conversión en indefinido registrado en la Oficina de Empleo.

- 2) Al cumplirse dos años de la fecha de contratación inicial mediante la remisión de los recibos salariales y de los documentos de cotización a la seguridad social tc2, de los doce meses anteriores.

En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentara en los plazos previstos en los párrafos anteriores se iniciará el procedimiento previsto en el artículo 60 del presente Decreto.

Artículo 48.—Obligaciones de la entidad beneficiaria

Las entidades beneficiarias quedan obligadas a mantener la estabilidad de la trabajadora durante un período de dos años a partir de la formalización del contrato.

En el caso de que no se mantengan las condiciones de estabilidad durante dicho período, se procederá a la minoración o reintegro de las ayudas percibidas en los siguientes casos:

- a) Si se produjera la extinción del contrato por voluntad unilateral del empresario/a o la persona trabajadora fuera trasladada a otro centro radicado fuera del Territorio Histórico de Bizkaia, la entidad beneficiaria deberá reintegrar la subvención total otorgada.
- b) Si se produjera la extinción del contrato por voluntad de la persona trabajadora, se procederá a la minoración y en su caso al reintegro de la ayuda, en la proporción que resulte de descontar a los dos años exigidos el período durante el cual se mantuvo vigente el contrato.

No se exigirá el reintegro si la persona trabajadora afectada fuera sustituida, mediante la contratación simultánea o dentro de dos meses siguientes al que se produjo la baja, por una nueva persona trabajadora, en las mismas condiciones que reunía la persona anteriormente contratada. Esta contratación no dará lugar en ningún caso a una nueva ayuda de las previstas.

No se exigirá el reintegro ni la contratación simultánea en los siguientes casos previstos en el Real Decreto legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores:

- Traslados o desplazamientos motivados por las causas contempladas en el artículo 40, siempre que no se produzca la extinción del contrato de trabajo.
- Despido colectivo según lo previsto en el artículo 51.

En el caso de que la entidad beneficiaria de la ayuda cesara su actividad, perderá el derecho al cobro de la subvención que se le hubiere otorgado a partir de ese momento.

49. artikulua.—Laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntzaren linea hau, Emakintza ekimenaren barruan sartu dena kaptazio, prestakuntza teoriko, prestakuntza praktikoa eta lane-ratze ibilbide baten emaitza da eta horretarako beharrezkoa izan da erakunde, enpresa eta ekimenean bertan parte hartu duten enpre-sen lankidetzak. Alderdi honek bazter uzten du, salbuespen moduan, eskabideen konparazioa eta, ondorioz, norgehiagoketa araubidea, eta lortu nahi duen xedea laguntzaren esleipena era eragingarrian bideratzea da, honako dekretu honetan ezarri diren beharkizunak betetzen dituzten eskabide guztietara interes publiko eta gizarte intereseko arrazoiengatik iritsiz. Horregatik laguntzaren esleipenaren eragingarritasuna eta berdintasuna bermatzeko norgehiagoka askeko araubidean ematen da eta horretara honako dekretu honetan ezarri diren beharkizunak betetzen dituzten eskabide guz-tiak irits daitezke.

II. TITULUA PROZEDURA

50. artikulua.—Prozeduraren hasiera eta tramitazioa

Diru-laguntzetarako eskabideek deialdietan ezarritakoa beteko dute aurkeztu behar diren erari, agiriei eta epeari dagokienez.

Eskabidea behar bezala aurkeztean, erakunde eskatzaileak baimena ematen dio Lan eta Trebakuntza Sailari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta dauzkan egiaztatzeko ziurtagiriak beraren izenean eska ditzan.

Diru-laguntzen eskabideak oso-osorik eta behar den bezala beteta ez badaude, edo beharrezko agirietako bat falta bada, edo laguntzaren xedea behar adina zehazten ez bada, erakunde edo enpresa eskatzaileari agindeia bidaliko zaio hamar eguneko epealdian akatsa zuzentzeko edo falta diren manuzko agiriak (deialdian aipatuak) aurkezteko, eta adieraziko zaio agindutakoa egin ezearan eskaeran atzera egin duela pentsatuko dela eta hala ezarriko dela berriazko ebazpen baten bidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 71.1. artikuluan ezarritakoaren arabera (lege hori 4/1999 Legeak aldatu du). Ebazpena 30/92 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatua) 42. artikuluan ezarritakoari lotuz eman behar da.

Eskabideak Lan eta Trebakuntza Saileko Enplegu Zerbitzuak tramitatuko ditu.

51. artikulua.—Diru-laguntzen adjudikazioa: baldintzak eta araubidea

Diru-laguntzak eta laguntzak dekretu honetan ezarritako baldintzen arabera emango dira eta bertan jasotako eta, hala bada, dagozkien deialdiak eta emakidarako foru aginduan ezartzen diren baldintzekin bat etorrira burutuko dira, dekretu honen 13., 19., 30., 40., eta 49. artikuluetan ezarritako emakidarako prozeduren bidez.

Dekretu honen ondoreetarako hauxe da norgehiagoka: aurkezten diren eskabideak erkatzen dira eta dekretu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera beraien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzen da, eta gero hari jarraituz adjudikatzen dira laguntzak, hau da, punturik gehien lortu dutenetik hasi eta beheraka, aurrekontuan baliagarri dagoen zenbatekoa kontuan hartuta.

Dekretu honen ondoreetarako, lehia askeak esan nahi du eskabideak jaso ahala banatuko direla funtsak, baldin eta eskabideok deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte egingo dela banaketa hori.

52. artikulua.—Diru-laguntzak ematea eta baliabideak

Eskabideak banan-banan ebartziko dira Lan eta Trebakuntza Saileko foru diputatuaren berriazko ebazpenen bidez. Diru-laguntzen eskabideei baiezkota ematen dieten foru aginduetan kasu bakoitzari dagozkion baldintza bereziak ezarri ahal izango dira; baldintza hauek nahitaez bete beharko dituzte erakunde eta enpresa onuradunek.

Artículo 49.—Procedimiento de concesión

Esta línea de subvención, enmarcada en la iniciativa Emakintza es el resultado de un itinerario de captación, formación teórica, práctica e inserción laboral, para cuya consecución es necesaria la colaboración de instituciones, empresas y las propias participantes en la iniciativa, aspecto que excluye con carácter excepcional la comparación de solicitudes y en consecuencia la concurrencia competitiva, pretendiendo posibilitar la asignación de ayuda de forma eficaz, llegando por motivos de interés público y social a todas las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos en la presente Iniciativa. Por ello, para asegurar su eficacia e igualdad en la asignación de la ayuda, esta línea de subvenciones, se otorga en régimen de libre concurrencia, a la cual puedan acceder todas las solicitudes que cumplan los requisitos establecidos en la presente Iniciativa.

TÍTULO II PROCEDIMIENTO

Artículo 50.—Iniciación del procedimiento y tramitación

Las solicitudes de subvención se ajustarán a lo establecido en las correspondientes convocatorias en lo referente a forma, documentación a adjuntar y plazo de presentación.

La solicitud debidamente presentada conlleva la autorización de la entidad solicitante al Departamento de Empleo y Formación para recabar en su nombre los certificados de estar al corriente de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

Recibidas las solicitudes de subvención, si éstas no vinieran cumplimentadas en todos sus términos o no fueran acompañadas de la documentación necesaria, o no se especificara suficientemente el objeto de la ayuda, se requerirá a la empresa o persona solicitante para que, en el plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos señalados en su correspondiente convocatoria, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, según lo previsto en el artículo 71.1 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la citada Ley 30/92 modificada por la Ley 4/99, de 13 de enero.

Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Empleo del Departamento de Empleo y Formación.

Artículo 51.—Adjudicación de subvenciones: condiciones y régimen

Las subvenciones y ayudas se otorgarán según las condiciones establecidas en el presente Decreto y se llevarán a cabo conforme a las condiciones en él contenidas así como las que, en su caso se establezcan en sus correspondientes convocatorias y en la Orden Foral de otorgamiento, mediante los procedimientos de concesión establecidos en los artículos 13, 19, 30, 40 y 49 del presente Decreto.

Se entiende, a los efectos del presente Decreto, como concurrencia competitiva el procedimiento mediante el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración fijados en este Decreto, y adjudicar, con el límite fijado en la presente convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

Se entiende, a los efectos del presente Decreto como libre concurrencia el procedimiento mediante el cual se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones, siempre que reunan los requisitos establecidos en la convocatoria hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

Artículo 52.—Otorgamiento y recursos

Las solicitudes serán resueltas mediante resolución expresa e individualizada del Diputado Foral de Empleo y Formación. En la Orden Foral por la que se resuelvan positivamente las solicitudes de subvención, podrán establecerse condiciones específicas a cada caso, que serán de obligado cumplimiento por parte de las entidades y empresas beneficiarias.

Onuradun bati diru-laguntza eman dion foru agindua jakinarazitakoan, hamar eguneko epea izango du onartzeko; epealdi horretan berariaz ezer adierazten ez bada, isilbidez onartutaz joko da.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.3 artikuluan xedatutakoaren arabera (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu du), ebazpenak eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabete pasatu baino lehen eman behar dira. Organo eskudunak aurkezten diren eskabide guztiak berariaz ebatzi beharra badauka ere, baldin eta eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko epealdian eskabide bati buruz berariazko ebazpenak ematen ez bada, administrazio isiltasunaren bidez gaitz iritziatzen joko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44. artikuluan arabera (lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu du).

Eskabidearen ebazpenak administrazio bidea agortuko du eta beraren aurka interesatuek berraztertze errekurtsua jarri ahal izango diote hura eman duen organoari edo, bestela, zuzen-zuzenean aurkaratu ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, azaroaren 26ko 30/92 Legeko 117. artikuluan (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatu du) eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluan ezarritako epeetan.

53. artikulua.—Frogagiriak aurkezteko azken epea

Ekintzak frogatzeko behar diren agiriak aurkezteko epeetik kanpo ez da onartuko inolako frogagiriak.

54. artikulua.—Erakunde onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honetan diru-laguntzen onuradunentzat ezarritako betebeharez gain, laguntzen entitate onuradunek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12., 13., 31.5 eta 41. artikuluetan aurreikusitako betebeharrak izango dituzte ere, besteak beste honakoak:

- Diru-laguntza emateko ebazpen proposamena eman baino lehen, zerga betebeharrak eta zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak kudeatzen dituen enbargoen ordoriozko zorrak, ordaindu gabekoak, egunean dituela egiaztatzea. Diru-laguntzen itzulketaren ordoriozko betebeharrak ordaintzeari dagokionez egunean ez dagoenak ere ezin izango du lortu onuradun izaera. Diru-laguntza ez da ordainduko harik eta erakunde onuradunak behar bezala egiaztatu arte zerga betebeharrak, zuzenbide publikoko gainerakoak eta, hala dagokionean, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak kudeatzen dituen enbargo ordaindu gabeetan zorrak ez duela.
- Diru-laguntzaren xede den jarduera egitea edo horretarako portaera izatea.
- Diru-laguntza eman duen erakundeari haren xede den jarduera egin dela edo horretarako portaera hartu dela frogatzea, eta diru-laguntza ematea edo gozatzea eragin duten betekizunak eta baldintzak betetzen direla frogatzea.
- Diru-laguntza eman duen erakundeak burutuko dituen egiaztapen-jarduketan pean jartzea, bai eta diru-laguntzen eta laguntzen arloan Ogasun eta Finantza Sailari dagokion finantzen kontrolerako jarduketan eta Kontu Publikoen Euskal Auzitegiaren prozedura fiskalizatzaileen pean ere.
- Diru-laguntza eman duen erakundeari beste edozein administrazio edo erakunde publikok, nazional zein nazioartekok, xede horretarako emandako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk jaso direla jakinarazi behar diote.
- Kontabilitateko liburuak, erregistro dilijentziatuak eta gainerako agiri guztiak merkataritzako eta arloko legeriaren arabera onuradunari aplikatu beharrekoaren arabera behar bezala ikuskatuta eduki behar dituzte, bai eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako kontabilitateko egoera-orri eta berariazko erregistro guztiak ere, ekintzak behar bezala egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko.

Notificada la Orden Foral de otorgamiento de la subvención se dispondrá de un plazo de diez días para su aceptación, transcurrido el cual sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.

Según lo dispuesto en el artículo 42.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, la resolución será dictada en el plazo de seis meses a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme al artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

La resolución de la solicitud de subvención agota la vía administrativa y contra la misma los interesados podrán interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano que la dictó o ser impugnadas directamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, en los plazos previstos en los artículos 117 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, modificada por Ley 4/99, de 13 de enero, y en el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Artículo 53.—Plazo final de presentación de documentación justificativa

Fuera del plazo establecido para la aportación de la documentación necesaria para la justificación de las acciones, no se admitirá ningún documento de justificación.

Artículo 54.—Obligaciones de la entidad beneficiaria

Además de las obligaciones previstas en este Decreto Foral para los beneficiarios de las subvenciones, son obligaciones de las entidades beneficiarias de las ayudas, las previstas en los artículos 12, 13, 31.5 y 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, siendo entre otras:

- Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social y deudas por embargos pendientes que gestione el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia. Tampoco podrá obtener la condición de beneficiaria quien no se halle al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad beneficiaria no acredite el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y demás de derecho público y, en su caso, frente a la Seguridad Social y deudas por embargos pendientes que gestione el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.
- Justificar ante la Entidad concedente, en su caso, la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la ayuda.
- El sometimiento a las actuaciones de comprobación, a efectuar por la Entidad concedente, en su caso, y a las de control financiero que corresponden al Departamento de Hacienda y Finanzas, en relación con las subvenciones y ayudas concedidas y a los procedimientos fiscalizadores del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
- Comunicar a la Entidad concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o Entes Públicos nacionales o internacionales.
- Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

- Jasotako funtsak nola erabili dituzten frogatzen duten agiriak gordeta izan behar dituzte, are agiri elektronikoak ere, ekintzak egiaztatu eta kontrolatu ahal diren epealdian; epealdi hori arautegian ezarri da.
- Enpresa onuradunek konpromisoa hartzen dute enpresa deslokalizatorik ez egiteko. Deslokalizazio bezala ulertzen da Enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektore Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Aginduan zehazten dena, eta hori ezarriko da foru dekretu honek arautzen dituen diru-laguntzetan.

Konpromiso hori ez betetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren akordio bidez aitortuko da, eta emandako diru-laguntza itzultzeko arrazoiak izango da. Horrela, aipatutako foru arauan aurreikusitako prozedura ezarriko da.

- Hurrengo artikuluan ezarritako publizitate-neurriak abiarazi behar dituzte.

55. artikulua.—*Publizitatea*

Honako dekretuaren I. eta IV. ekimenean ezartzen dituzten diru-laguntza Europako Fondoarekin batera finantzatzen dira, enplegua garatzeko helburuaz, enpresaren izaera, egokitzapena, aukera berdintasuna eta giza baliabideetan inbertsioa sustatuz.

Batzordearen 2006ko abenduaren 8ko 1828/2006 Araudian (Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean 2006ko abenduaren 27n argitaratu zen) ezarritakoa betetzeko, Europar Batasunak proiektua finantzatzen laguntzen duela onuradunei adjudikazioaren foru aginduan jakinaraziko zaie. Hori gorabehera, horiek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 17.3. artikuluan ezarritakoa ere beteko da.

56. artikulua.—*Beste diru-laguntza batzuekin pilotzea*

I EKIMENA:

I ekimenean dauden ekintzetarako diru-laguntzak jasotzea bateagarria izango da xede bererako estatuko edo Europako Batasuneko administrazio edo erakunde publiko zein pribatuaren nazioarteko erakundeen beste diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak jasotzearekin, beti ere halako laguntzen zenbateko osoak gizarte segurantzako kostuaren %100a gainditzen ez badu. Ehuneko gainditzen duen zatia itzuli egin beharko da.

II EKIMENA ETA III EKIMENA:

II ekimenean eta III ekimenean ezarritako laguntzetako bat jasotzen dutenek xede bererako beste laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso ahal izango dituzte aldi berean estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazio, erakunde publiko edo erakunde pribatuengatik, baina ezin izango dute ekintza bererako diru-laguntza gehiago jaso Lan eta Trebakuntza Sailaren beste egitarau batzuetatik, azken laguntza horiek bateraezinak izango baitira.

Diru-laguntza guztien batura, berez edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan inola ere diru-laguntza jasotzen duen jardueraren kostua baino gehiago.

IV EKIMENA:

IV ekimenean dauden ekintzetarako diru-laguntzetako bat jasotzen bada, ezin izango da jaso xede bererako estatuko edo Europako Batasuneko administrazio edo erakunde publiko zein pribatuaren edo nazioarteko erakundeen beste diru-laguntzarik, laguntzarik, sarrerarik edo baliabiderik. Dekretu honen I ekimenean araututakoekin beren-beregi bateraezinak dira. Bateraezintasun honetan, salbuespena izango dira Gizarte Segurantzari ordaintzen zaizkion enpresa kuoten hobariak.

- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluido los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante el plazo al efecto establecido por la normativa aplicable.

- Las empresas que resulten beneficiarias, asumen el compromiso de no incurrir en deslocalización empresarial, entendiéndose por tal lo prevenido en la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo, de Recuperación de ayudas del Sector Público Foral en el supuesto de Deslocalizaciones Empresariales, la cual será de plena aplicabilidad a las subvenciones reguladas por el presente Decreto Foral.

El incumplimiento de este compromiso será declarado mediante acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia y constituirá causa de reintegro de la subvención concedida, aplicándose el procedimiento previsto en la citada Norma Foral.

- Adoptar las medidas de difusión contenidas en el artículo siguiente.

Artículo 55.—*Publicidad*

Las subvenciones contempladas en las iniciativas I y IV del presente Decreto están cofinanciadas por el Fondo Social Europeo, cuyo fin es contribuir al desarrollo del empleo impulsando la empleabilidad, el espíritu de empresa y la adaptabilidad, la igualdad de oportunidades y la inversión en recursos humanos.

En cumplimiento de lo establecido en el reglamento 1828/2006 de la Comisión de 8 de diciembre de 2006, publicado en el Diario Oficial de las Comunidades Europeas de 27 de diciembre de 2006, de dicha cofinanciación se informará a las entidades beneficiarias en la Orden Foral de adjudicación, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Artículo 56.—*Concurrencia con otras subvenciones*

INICIATIVA I:

La percepción de las subvenciones concedidas en virtud de las acciones contempladas en la Iniciativa I serán compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que el cómputo global de dichas ayudas no supere el 100% del coste de seguridad social. El exceso de ese porcentaje será objeto de reintegro.

INICIATIVA II E INICIATIVA III:

Será compatible la percepción de las ayudas previstas en la Iniciativa II e Iniciativa III, con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales a excepción de la percepción de otra subvención por la misma acción en virtud de otro programa del Departamento de Empleo y Formación, en este último supuesto será incompatible.

En ningún caso el importe total de las subvenciones podrá ser de tal cuantía que aisladamente, o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

INICIATIVA IV:

La percepción de las subvenciones concedidas en virtud de las acciones contempladas en la iniciativa IV serán incompatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siendo expresamente incompatibles con las reguladas en la iniciativa I del presente Decreto. Quedan exceptuadas de esta incompatibilidad las bonificaciones a las cuotas empresariales a la Seguridad Social.

Erakunde onuradunek beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideren bat hartzen badute hemen ezarritako diru-laguntzak dituzten jarduerak finantzatzeko, jakitun jarri beharko dute hemen ezarritako laguntzak eman dizkien organoa.

Hain zuzen ere, jaso bezain laster jakinarazi behar diote, eta nahitaez, jasotako fondoak nola erabili dituzten frogatu baino lehen.

Jakinartzeko betebeharrak hau ez betetzeak zehapena ekarriko du, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauarekin bat etorriz.

57. artikulua.—Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira (beti ere diru-laguntzaren helburua eta xedea betetzeari utzi gabe), diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, dekretu honetan ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz.

58. artikulua.—Diru-laguntzaren urripena

Diru-laguntzen helburua eta xedea betetzat jota daudela, ekintzak egin direla frogatzeko ezarritako epealdietan den-denak egin direla behar bezala frogatu ezean, diru-laguntzaren zenbatekoa benetan frogatutako kostuen arabera doitu da, proportzionaltasunaren irizpidea eta diru-laguntzak emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuta.

59. artikulua.—Ez-betetzea

Ez-betetzea onuradunak dekretu honetan, emate ebazpenean edo aplikatu beharreko gainerako arautegian ezarritako baldintzetako bat betetzen ez duenean gertatuko da, bai eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan ezarritako balizkoetan ere.

60. artikulua.—Aldaketen, urripenen eta ez-betetzeen prozedura

Prozedurari ekitekoan, pertsona edo enpresa onuradunak urtarilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 84. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatzeko badu, lehenbizi hamar eguneko entzunaldia izango du, Lan eta Trebakuntza Saileko foru diputatuaren foru aginduaren bidez.

Prozedura administrazio unitate egokiak tramitatuko du eta Lan eta Trebakuntza Saileko foru diputatuak ebatziko du; ebazpenean erakunde onuradunak jasotako kopuru osoa edo haren zati bat itzuli behar duela adieraziko du, bidezkoa denean.

Prozedura hori hasi ondoren, ezin izango da dekretu honetan ezarritako epeetan aurkeztu ez den agiri berririk aurkeztu.

Horrez gainera, ez-betetzea adierazten duen foru aginduan zehapen-prozedurari ekiteko ere agindu daiteke.

61. artikulua.—Itzuli beharreko kredituak

Baldin eta, emandako diru-laguntzaren aldaketa, urripena edo ez-betetzearen adierazpena dela-eta, emandako diru-laguntza osoa edo zati bat itzultzen bada, diru-laguntza kobratu zenetik aplikatu behar diren berandutza-korrituak ordaindu beharko dira, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 34. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gero Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak dirua biltzeko prozedurari ekingo dio eta norberaren borondatez ordaintzeko epealdia hasiko da.

Será obligación de las entidades beneficiarias comunicar al órgano concedente, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

El incumplimiento de este deber de comunicación dará lugar a la correspondiente sanción de conformidad con la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Artículo 57.—Modificación de la subvención

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entiendan cumplidos la finalidad y objeto de éstas, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, aplicándose los criterios y límites establecidos en este Decreto.

Artículo 58.—Minoración de la subvención

Transcurridos los plazos establecidos para la justificación de la realización de las acciones subvencionadas, sin que se hubiera acreditado y justificado en su totalidad su ejecución en la forma prevista, siempre que se entiendan cumplidos la finalidad y objeto de las ayudas, se procederá al reajuste de la cuantía de la subvención en función de los costes efectivamente justificados, aplicándose el criterio de proporcionalidad así como los criterios y límites establecidos para su otorgamiento.

Artículo 59.—Incumplimiento

Se considerará que existe incumplimiento, cuando las entidades beneficiarias de las ayudas no cumplan las condiciones establecidas en el presente Decreto, o en la resolución de otorgamiento, o las establecidas en la demás normativa de aplicación, así como en los supuestos determinados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Artículo 60.—Procedimiento de modificaciones, minoraciones e incumplimientos

El procedimiento se iniciará concediendo una audiencia de diez días a la persona o Entidad beneficiaria, en el caso de que la misma proceda según lo dispuesto en el artículo 84 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, mediante la correspondiente Orden Foral del Diputado Foral de Empleo y Formación.

El procedimiento se tramitará por la unidad administrativa correspondiente, y será resuelto por el Diputado Foral de Empleo y Formación, que declarará, en su caso, la obligación de las entidades beneficiarias de reintegrar en todo o en parte la cantidad concedida y percibida.

Una vez iniciado dicho procedimiento no se podrán aportar documentos nuevos que no hubieran sido aportados en los plazos establecidos en el presente Decreto.

Asimismo, la Orden Foral de declaración de incumplimiento, podrá acordar, en su caso, la apertura de procedimiento sancionador.

Artículo 61.—Créditos a reintegrar

Todo reintegro, ya sea parcial o total de la subvención, como consecuencia de la modificación, minoración, de la declaración de incumplimiento de la subvención concedida, dará lugar a la obligación de abonar los intereses de demora que resulten de aplicación desde el pago de la subvención conforme a lo dispuesto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Posteriormente el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia iniciará el procedimiento recaudatorio, abriéndose el periodo de pago voluntario.

62. artikulua.—Arautegi orokorra

Dekretu honek aipatzen dituen diru-laguntzak hauetan ezarritakoaren arabera eraenduko dira: dekretu hau bera, deialdien aginduak, eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, interesatuak ematen dituen datuak dena delako prozeduran edo jarduketan aurreikusitako xedetarako ez beste ezertarako erabiliko dira.

Datu horiek inola ere ez dira tratatuko, ez beste bati lagako, interesatuak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko («EAO», 298. zk., 1999ko abenduaren 14koa) 6.2. eta 11.2. artikuluetan ezarritako balizkoetako bat gertatu ezean. 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, datuak lagatzen dituenak noiznahi baliarazi ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezes-teko eta aurkaratzeko eskubideak, arauz ezarritakoari lotuta.

Dekretu honetan ezarritako laguntzak edo diru-laguntzak EEko Hitzarmeneko 87. eta 88. artikulua MINIMIS laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2006eko abenduaren 15eko 1998/2006 Arautegian (Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean 2006/12/28an argitaratua) ezarritakoari lotu behar zaizkio; beraz, arautegi hori ez betetzeak zigor eta administrazio erantzukizuna eta erantzukizun zibila ekar diezazkioke erakunde urratzaileari.

Administrazio prozedurari dagokionez dekretu honetan ezarri ez den guztirako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da (lege hori 4/1999 Legeak aldatu du).

63 artikulua.—Zehapen-prozedura

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluan ezarritakoa aplikatuko da (foru arau horren bidez Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezarri da).

Azaroaren 26ko 30/92 Legeko IX. tituluan ezarritako zehapen-prozedura aplikatuko da (urtarrilaren 13ko 4/99 Legeak aldatu du).

64. artikulua.—Dekretu honen indarraldia

Foru Dekretu hau indarrean egongo da 2008, 2009 eta 2010 urteetan.

AZKEN XEDAPENAK**Lehena.—Indarrean jartzea**

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.—Deialdiak

Dekretu honen ekimenetan azaltzen diren diru-laguntzen deialdiak Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntzako foru diputatuaren foru aginduz egingo dira. «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean (www.bizkaia.net), Lan eta Trebakuntza Saila, argitaratuko dira.

Hirugarrena.—Arauen garapena

Lan eta Trebakuntza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio dekretu hau osatzeko edo garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Laugarrena.—Aurrekontu-zainpeketa

Dekretu honen arabera eman daitezkeen laguntzak eta onurak jarraian adierazten diren aurrekontu-partiden eta zuzkiduren kargura emango dira, azken hauek indarreko aurrekontu-araudia bete behar diren kariaz aldaraziak izateko aukeraren kalterik gabe.

Artículo 62.—Normativa general

Las subvenciones a que se refiere el presente Decreto se regirán por lo dispuesto en el mismo, en las Ordenes Forales de sus convocatorias y en las Ordenes Forales de otorgamiento, así como por lo establecido en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

De acuerdo con lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de carácter personal los datos aportados por el interesado se utilizarán, con carácter único y exclusivo, para los fines previstos en el procedimiento o actuación de que se trate.

En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceros, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en los artículos 6.2 y 11.2 de la ley 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de carácter personal («B.O.E.» número 298, de 14 de diciembre de 1999). En cumplimiento de lo dispuesto en la citada Ley Orgánica 15/1999, el cedente de los datos podrá, en cualquier momento, ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la forma que reglamentariamente se determine.

Las ayudas o subvenciones contempladas en el presente Decreto están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento C.E. número 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, publicado en el «Diario Oficial de las Comunidades Europeas» de 28-12-2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado C.E. a las ayudas de MINIMIS y, en consecuencia, el incumplimiento de esa normativa podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la entidad infractora.

En lo no previsto en el presente Decreto en cuanto a procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común modificada por la ley 4/1999.

Artículo 63.—Procedimiento sancionador

Resultará de aplicación lo previsto en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Será de aplicación el procedimiento sancionador previsto en el Título IX de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, modificada por la Ley 4/99, de 13 de enero.

Artículo 64.—Vigencia del presente Decreto

El presente Decreto Foral tendrá vigencia durante los años 2008, 2009 y 2010.

DISPOSICIONES FINALES**Primera.—Entrada en vigor**

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Segunda.—Convocatorias

Las convocatorias para las subvenciones contempladas en las diferentes iniciativas del presente Decreto se realizarán mediante Orden Foral del diputado foral de Empleo y Formación de la Diputación Foral de Bizkaia y se publicarán en el «Boletín Oficial de Bizkaia», así como en la página web de la Diputación Foral de Bizkaia www.bizkaia.net Departamento de Empleo y Formación.

Tercera.—Desarrollo normativo

Se faculta al diputado foral de Empleo y Formación a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para completar o desarrollar el presente Decreto.

Cuarta.—Consignación presupuestaria

Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse con arreglo al presente Decreto, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias, sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente.

- Partida: 1202/G/320203/43299 2008/113
- Urte anitzeko gastuak: 75.000 euro
- Zenbatekoa, ekitaldietan banatuta:
 - 2008. urtea: 50.000 euro
 - 2009. urtea: 25.000 euro
- Partida: 1202/G/320203/44300 2008/113
- Urte anitzeko gastuak: 3.580.000 euro
- Zenbatekoa, ekitaldietan banatuta:
 - 2008. urtea: 2.110.000 euro
 - 2009. urtea: 1.395.000 euro
 - 2010. urtea: 75.000 euro
- Partida: 1202/G/320203/45100 2008/113
- Urte anitzeko gastuak: 750.000 euro
- Zenbatekoa, ekitaldietan banatuta:
 - 2008. urtea: 375.000 euro
 - 2009. urtea: 375.000 euro

Zainpeturiko kredituaren muga dela eta, dekretu honen itzalpean dauden baliabide ekonomikoek ahalbidetzen dituzten laguntzak bakarrik eman ahal izango dira.

Bilbon, 2008ko maiatzaren 19an.

Lan eta Trebakuntzako foru diputatua,
EUSEBIO LARRAZABAL OLABARRI

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-826)

Ahaldun Nagusia

Ahaldun Nagusiaren 84/2008 FORU DEKRETUA, maiatzaren 13koa, zenbait foru diputaturen ordezpena xedatu duena.

Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 27-2.6. artikuluan xedatu denarekin bat etorritz, hauxe

XEDATU DUT:

Juan María Aburto Rike Gizarte Ekintza Saileko foru diputatua kanpotik den bitartean, maiatzaren 14tik 15era, biak barne, Eusebio Larrazabal Olabarri Lan eta Trebakuntza Saileko foru diputatua arduratuko dela haren eginkizunez.

Iñaki Hidalgo González Herri Lan Saileko foru diputatua kanpotik den bitartean, maiatzaren 16tik 23ra, biak barne, Izaskun Artetxe Garcia Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saileko foru diputatua arduratuko dela haren eginkizunez.

Bilbo, 2008ko maiatzaren 13a.

Ahaldun Nagusia,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-842)

Garraio eta Hirigintza Saila

Maiatzaren 8ko 492/2008 Foru Agindua, Alonsotegi udalerriko Arau Subsidiarioen aldatetari buruzkoa, Larramendiko udal futbol-zelaia birkokatzea dela eta.

Aipatu Foru Aginduaren bidez, ondokoa xedatu izan da:

1.a Behin betiko onartzea Alonsotegi udalerriko Arau Subsidiarioen aldateta, Larramendiko udal futbol-zelaia birkokatzea dela eta, hurrengo alderdiak zuzendu egin behar izanik:

- Partida: 1202/G/320203/43299 2008/113
- Gasto plurianual: 75.000 euros
- Importe y distribución por ejercicios:
 - Año 2008: 50.000 euros
 - Año 2009: 25.000 euros
- Partida: 1202/G/320203/44300 2008/113
- Gasto plurianual: 3.580.000 euros
- Importe y distribución por ejercicios:
 - Año 2008: 2.110.000 euros
 - Año 2009: 1.395.000 euros
 - Año 2010: 75.000 euros
- Partida: 1202/G/320203/45100 2008/113
- Gasto plurianual: 750.000 euros
- Importe y distribución por ejercicios:
 - Año 2008: 375.000 euros
 - Año 2009: 375.000 euros

En virtud del límite de crédito consignado, únicamente podrán acogerse al amparo de este Decreto, las ayudas que permitan las disponibilidades económicas existentes.

En Bilbao, a 19 de mayo de 2008.

El diputado foral de Empleo y Formación,
EUSEBIO LARRAZABAL OLABARRI

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-826)

Diputado General

DECRETO FORAL del Diputado General 84/2008, de 13 de mayo, por el que se dispone la sustitucion de diputados forales.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 27.2. 6.º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico,

DISPONGO:

Que, durante la ausencia del diputado foral del Departamento de Acción Social, Ilmo. Sr. D. Juan María Aburto Rike, del 14 al 15 de mayo, ambos inclusive, se encargue de sus funciones el diputado foral del Departamento de Empleo y Formación Ilmo. Sr. D. Eusebio Larrazabal Olabarri.

Que, durante la ausencia del diputado foral del Departamento de Obras Públicas, Ilmo. Sr. D. Iñaki Hidalgo González, del 16 al 23 de mayo, ambos inclusive, se encargue de sus funciones la diputada foral del Departamento de Innovación y Promoción Económica Ilma. Sra. Dña. Izaskun Artetxe Garcia.

Bilbao, a 13 de mayo de 2008.

El Diputado General,
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

(I-842)

Departamento de Transportes y Urbanismo

ORDEN FORAL 492/2008, de 8 de mayo, relativa a la modificación de las Normas Subsidiarias del municipio de Alonsotegi, en relación con la reubicación del campo de fútbol municipal de Larramendi.

Mediante la Orden Foral de referencia se ha dispuesto lo siguiente:

1.º Aprobar definitivamente la modificación de las Normas Subsidiarias del municipio de Alonsotegi, en relación con la reubicación del campo de fútbol municipal de Larramendi debiendo corregirse los siguientes aspectos:

1.1. Ingurumeneko inpaktuaren behin betiko txostena dela eta, esan beharra dugu bertan adierazi dela, besteak beste, zehaztapen lotesle modura sartzeari «Cerámica Arrate»ren tximinia eta gainerako aztarna kontserbatuak egokitasunez zaharberri egin behar izatea, nola eta ingurumeneko inpaktuaren aurretiazko txostenean, ekarri den Aranzadi Zientzien Sozietatearen txosten teknikoan eta baita ingurumeneko inpaktuaren azterlanaren agiri osagarrian bertan zehaztuaren arabera. Zaharberri hau egikaritu beharko da horretarako den proiektu batean oinarrituz, Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak gainbegiratu eta onartu beharko duena. Gai guzti hauek, behin betiko agiriaren araudian jasoko dira.

1.2. FEVE-ren txostenaren arabera, araudian sartuko da haren aldetiko baimen beharrezko eta salbuetzi ezina lortu behar izatea, etorkizunean, trenbidearen eragineko aldean egikaritzeko diren edozein obrak direla eta. Izan ere, aurretiazko izaeraz izapidetu behar da arlo horretan eskumenduna den FEVE-ren Ikuskaritza Orokorren aurrean.

2.a Alonsotegiko udalari, Ingurumen Sailaren 2008ko apirilaren 18ko 08/713 Foru Aginduaren berri ematea. Foru Agindu horren bidez, aldaketa honen ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostena eman eta zenbait neurri adierazi dira zuzendu, babestu, konpentsatu eta ikuskatzeko. Horiek guztiak egoki hartu behar dira kontuan plangintza orokorra garatu eta burutzeko tresnetan.

3.a Ebazpen hau Alonsotegiko udalari eta Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari jakinaraztea, lehengoari adieraziz, ahal denik eta eperik laburrenean, behar bezala zuzendua den agiriaren hiru ale aurkezteko. Izan ere, hori egin arte ezin daitezke argitaratu onetsi diren plangintzaren artikulak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedatua denaren arabera.

4.a Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Administrazio-bidea amaitzen duen aurreko ebazpen horren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezakezu, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Jurisdikzio horri dagokion Salan; hala ere, zure interesak babes-teko egoki deritozun beste edozein neurri ere erabil dezakezu.

Aipatu epean zehar BHI-156/2005-P05-A espedientea agerian utziko da, aztertu nahi denerako, Bilboko Rekalde Zumarkaleko 18. zenbakiaren 2. solairuan.

Bilbo, 2008ko maiatzaren 8an.

Garraio eta Hirigintzako foru diputatua,
ITZIAR GARAMENDI LANDA

(I-840)

Kultura Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 78/2008 FORU DEKRETUA maiatzaren 13ko. Horren bitartez ezarri zen udalen, udal fundazio publikoen eta Bizkaiko udalen menpean dauden erakunde autonomoen araudia, hain zuzen ere euren udal eremuko aisia eta astialdiko gazte elkarteek burututako haur eta gazteen programak sustatzeko, 2008ko ekitaldian.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak, aisialdia eta astialdiaren eremuan lan egiten duten toki mailako elkarten lana haurren eta gazteen garapen pertsonal eta kolektiborako oso garrantzitsua dela jakinda, diru-laguntza eman nahi die toki erakundeei erakunde horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietan egiten dituzten jarduerak mantendu eta sustatzeko.

1.1. De acuerdo con el Informe Definitivo de Impacto Ambiental, se incorporará como determinación vinculante la obligación de proceder a la adecuada restauración de la chimenea y demás restos conservados de la «Cerámica Arrate» según lo especificado en el Informe Preliminar de Impacto Ambiental, en el informe técnico de la Sociedad de Ciencias Aranzadi aportado, así como el propio documento complementario del Estudio de Impacto Ambiental. Esta restauración constituye una medida que deberá ejecutarse en base a un proyecto de restauración que deberá ser supervisado y aprobado por el Servicio de Patrimonio Histórico de la Diputación Foral de Bizkaia. Todas estas cuestiones serán recogidas en la normativa del documento definitivo.

1.2. De acuerdo con el informe de FEVE, se incorporará en la normativa la obligación de obtener la preceptiva e inexcusable autorización de FEVE en relación con cualesquiera obras futuras a ejecutar en la zona de influencia del ferrocarril, debiendo tramitarse con carácter previo en su momento ante la Inspección General de FEVE competente en dicha materia.

